

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Elkarrizketa Sozialeko Mahaiak araudien aldaketa sustatzea adostu du, kontratazio publikoetan kasuan kasuko hitzarmen kolektiboa aplikatzeko

Hala erabaki dute patronalak eta sindikatuek, gaur, Nafarroako Jauregian egin den Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren bileran.

Viernes, 11 de abril de 2014

Elkarrizketa Sozialeko Mahaiak, Yolanda Barcina Lehendakariak, Lourdes Goicoechea kontseilariak, José Antonio Sarría CENeko lehendakariak eta Javier Lecumberri eta Raúl Villar Nafarroako UGT eta CCOO sindikatueta idazkari nagusiek osaturikoak, gaurko saioan, Nafarroako



Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren bilera.

administrazio publikoetako esleipen edo kontratazio guztietan jardueraren arabera kasuan kasuko sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren araudi-aldaketak sustatzea erabaki du.

Eragile ekonomiko eta sozialek eskatuta, Mahaiak, laneko eta gizarteko betebeharrak betetzen direla bermatzeko, esate baterako, sektoreko hitzarmen kolektiboari dagozkionak, kontratazio publikoa arautzen duen araudian klausulak gehitzeko aukera eztabaidatu du. Sustatzaileen iritziz, ekimenaren helburua kontratu horietako jarduerak burutzen dituzten langileen lan-baldintzak betetzen direla zaintzeaz gain, kontratazioen esleipendunak izatea aukeratzen duten enpresekin zintzoa den eskumen-esparrua ezartzea ere bada.

Nafarroako Gobernua ados agertu da ekimenarekin, eta konpromisoa hartu du proposamenaren egokitasun juridikoa aztertzeko egin beharreko izapideak hasteko, ekimena aurrera atera dadin.

Ekonomiaren berrindartzea eta enplegurako politika aktiboak

Gaurko saioan, Mahaiak bi lan-talde espezifiko abian jartzea ere erabaki du: bata jarduera ekonomikoa eta enplegua berraktibatzen bideratutako neurriak bultzatzeko izango da. Horretarako, industriako politika osoko ikuspegi batetik (finantzazioari babesa, inbertsioak erakartzea, azpiegiturak, energia, teknologia, berrikuntza, giza kapitala prestatzea etab.) lantzeak duen garrantzia azpimarratu da. Taldean,

erakunde ekonomiko eta sozialetako ordezkariak gain, Iñaki Morcillo eta María Jesús Valdemoros Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren eta Ekonomia eta Enpresa Politikako zuzendari nagusiek ere, hurrenez hurren, parte hartuko dute.

Bigarren taldeak enplegurako politika aktiboak landuko ditu, sendotu eta krisiak sortutako egoera berrietara egokitzeko. Taldeak pertsona langabetuen profil berrien enplegua lortzeko aukerak eta enplegarritasun-baldintzak hobetzeko tresnak egokitzera bideratutako proposamenak egingo ditu, besteak beste.